B ATALA

Euskadiko Ogasunaren kudeaketa

2018ko ekitaldian

Parte B

Gestión de la Hacienda Vasca

en el ejercicio 2018

VI. Kapitulua

Euskadiko Ogasun Orokorra

Capítulo VI

La Hacienda General del País Vasco

1. SARRERA

1/1997 Legegintzako Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, honako hau ezartzen du 1. artikuluan: "Euskal Autonomia Erkidegoak ekonomiaren arloan dauzkan eskubide eta obligazio guztiek osatzen dute Euskadiko Ogasun Nagusia".

Kapitulu honetan, Euskadiko Ogasun Orokorrak 2018ko ekitaldian egindako kudeaketa aztertzen da. Lehenik eta behin,

1. INTRODUCCIÓN

El Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, establece en su artículo 1 que "la Hacienda General del País Vasco está constituida por el conjunto de derechos y obligaciones, de naturaleza económica, de que sea titular la Comunidad Autónoma de Euskadi".

En este capítulo se analiza la gestión de la Hacienda General del País Vasco en 2018. Primeramente, se realiza una breve reseña

urtean zehar onartutako xedapenen aipamen laburra egiten da, eta, ondoren, kudeaketa ekonomikoaren azterketa egiten da, bi alderdi bereizita: sarrerak eta gastuak.

Sarrerak kopuruan duten garrantzia eta instituzionalki duten garrantzia kontuan hartuta sailkatu ditugu. Euskadiko Ogasun Orokorraren finantzazio-iturri nagusia foru-aldundien ekarpenak dira, Ekonomia Itunaren baliabideak erakundeen artean banatzetik datozenak; eta horiek aztertuko dira lehenbizi. Ondoren, Estatuko administrazioaren eta Europar Batasunaren transferentziak aztertzen dira, bai eta zorpetzea eta gainerako sarrerak ere. Aurrerago, gastuaren kudeaketa ekonomikoari buruzko atal bat dago.

Horrezaz gain, izaera instituzionaleko zenbait finantza-fluxu aztertzen dira. Ez dute eraginik Euskadiko Ogasun Orokorraren aurrekontuan, baina haien finantza-kudeaketa egin behar du. Hona hemen:

- Estatuari ordaindu beharreko kupoa. Lurralde historiko bakoitzari dagokion kopurua Ogasun Orokorrak jasotzen du, eta, ondoren, Estatuari ordainketa bateratu batean ordaintzen zaio.

- BEZagatik bildutakoa doitzea. Estatutik datozen diru-kopuruak Ogasun Orokorrak jasotzen ditu eta horrek foru-aldundiei banatzen dizkie.

- Fabrikazioko Zerga Bereziengatik bildutakoaren egokitzapena. Horiek ere foru-aldundien artean banatzen dira.

- Fabrikazioko Zerga Bereziak ituntzeak eragindako finantza-konpentsazioak. Kupoaren finantza-fluxuarekin batera egiten dira.

- Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema dela eta Estatuak bermatutako gutxieneko babes-mailaren finantzazioan Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion parte-hartzea, foru aldundien artean banatzen dena.

sobre las disposiciones aprobadas a lo largo del año y luego se aborda la gestión económica desde la doble vertiente de ingresos y gastos.

Los ingresos se clasifican según su relevancia cuantitativa e institucional. Las Aportaciones de las Diputaciones Forales, provenientes de la distribución entre Instituciones de los recursos del Concierto Económico, constituyen la principal fuente de financiación de la Hacienda General del País Vasco. A continuación, se analizan las transferencias de la Administración del Estado y de la Unión Europea, así como el endeudamiento y resto de ingresos. Más adelante, se incluye un apartado destinado a la gestión económica del gasto.

Además, se analizan varios flujos financieros de carácter institucional que no tienen una incidencia presupuestaria para la Hacienda General del País Vasco, pero que sí implican una gestión financiera por parte de ésta. Estos flujos son:

- Cupo a pagar al Estado, en el que los importes de cada Territorio Histórico se reciben en la Hacienda General y, luego, se efectúa el pago conjunto al Estado.

- Ajuste de la recaudación por el IVA, en que los importes procedentes del Estado se reciben en la Hacienda General que los distribuye entre las Haciendas Forales.

- Ajustes de la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación que se distribuyen, igualmente, entre las Diputaciones Forales.

- Compensaciones financieras derivadas de la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación, que se realizan junto con los flujos financieros del cupo.

- Participación del País Vasco en la financiación estatal del nivel mínimo de protección del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, que se distribuye entre las Diputaciones Forales.

2. ARAUGINTZA

2.a. Alderdi orokorrak

2018. urtean, Ogasun Orokorraren araugintzaren jarduera autonomia-erkidegoaren tasak eta prezio publikoak arautzea izan zen.

Abenduaren 22ko 5/2017 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, II. kapituluko 28. artikuluan, eguneratu egin zituen oinarriaren ehuneko jakin bat finkatuta ez izateagatik edo oinarria moneta-unitateetan emana ez egoteagatik finkoak diren Euskadiko Ogasun Nagusiaren tasak: 2017rako eskatzen ziren zenbatekoei, hain zuzen ere, bat koma zero hamabost (1,015) koefizientea aplikatzetik ondorioztatzen den kopururaino.

Aipatutako araudiarekin bar etorrita, prezio publiko hauek ezarri ziren:

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen zerbitzuengatik.
- Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren argitalpenengatik.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren lege berriaren bidez, hurrengo tasa eguneratu zen:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko portuetako zerbitzu orokor eta bereziengatik.

2.b. Arauen aurkibidea

BESTELAKO XEDAPENAK

2/2018 LEGEA, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena. (EHAA 129 zk., 2018ko ekainak 5).

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, Hezkuntza Sailak prestatzen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzeko agindua laugarren aldiz aldatzen duena. (EHAA 98 zk., 2018ko maiatzak 23).

2. ACTIVIDAD NORMATIVA

2.a. Aspectos generales

La actividad normativa de la Hacienda General durante 2018 se concentró en la regulación de las tasas y precios públicos de la Comunidad Autónoma.

Mediante el artículo 28 del Capítulo II de la Ley 5/2017, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2018, se procedió a la actualización de las tasas de la Hacienda General del País Vasco de cuantía fija, bien por no estar fijadas en un porcentaje de la base o por no estar ésta valorada en unidades monetarias, elevándolas hasta la cantidad resultante de la aplicación del coeficiente uno coma cero quince (1,015) de la cuantía que resultaba exigible en el año 2017.

De acuerdo con la mencionada regulación, se fijaron los siguientes precios públicos:

- Por los servicios que presta el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura.
- Por las publicaciones editadas por el Servicio Central de Publicaciones.

Además, por la nueva ley de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco se actualizó la siguiente tasa:

- Por los servicios generales y específicos en los puertos de titularidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.b. Índice normativo

OTRAS DISPOSICIONES

LEY 2/2018, de 28 de junio, de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco. (BOPV nº 129, de 5 de junio de 2018).

ORDEN de 16 de mayo de 2018, de la Consejera de Educación, de cuarta modificación de la Orden por la que se fijan los precios públicos de los servicios educativos que presta el Departamento de Educación. (BOPV nº 98, de 23 de mayo de 2018).

AGINDUA, 2018ko ekainaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, 2018-2019 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko prezioak finkatzen dira, bai eta horien salbuespen eta murrizketez baliatzeko baldintzak ezarri ere. (EHAA 126 zk., 2018ko uztailak 2). Akats zuzenketa. (EHAA 237 zk., 2018ko abenduak 11)

AGINDUA, 2018ko irailaren 18koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren argitalpenen prezio publikoak finkatzeko dena. (EHAA 189 zk., 2018ko urriak 1).

IRAGARKIA, zeinaren bidez argitara ematen baita Donostiako «Miramar Jauregia» Kontsortzioa kudeatzen duen Fundazioaren Zuzendaritza Batzordearen 2018ko maiatzaren 16ko Erabakiarena. Erabaki hartan ezartzen dira «Miramar Jauregia» Kontsortzioak eskainitako zerbitzuen prezio publikoak. (EHAA 106 zk., 2018ko ekainak 4).

ORDEN de 20 de junio de 2018, de la Consejera de Educación, por la que se fijan los precios a satisfacer por los servicios públicos de educación superior de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea para el año académico 2018-2019 y se definen las condiciones para el beneficio de las exenciones y reducciones de los mismos. (BOPV nº 126, de 2 de julio de 2018). Corrección de errores. (BOPV nº 237, de 11 de diciembre de 2018).

ORDEN de 18 de septiembre de 2018, del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se fijan los precios públicos de publicaciones editadas por el Servicio Central de Publicaciones. (BOPV nº 189, de 1 de octubre de 2018).

ANUNCIO del Acuerdo de 16 de mayo de 2018, de la Junta Rectora de la Fundación que gestiona el Consorcio «Palacio Miramar», que fija los precios públicos de los servicios ofertados por el Consorcio «Palacio Miramar». (BOPV nº 106, de 4 de junio de 2018).

3. KUDEAKETA EKONOMIKOA

3.a. Diru-sarrerak

VI.1 koadroan adierazten dira, laburtuta, Eusko Jaurlaritzak 2018ko ekitaldian likidatutako diru-sarrerak, aitortutako eskubideak eta likidatutako garbiak. Guztira, 11.691.031 mila euro dira.

Hurrengo koadroek kontzeptu nagusiengatiko diru-sarrerak adierazten dituzte. Nabarmentzekoak dira foru-aldundien ekarpenak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen guztizko diru-sarreren % 85,5 baitira.

3. GESTIÓN ECONÓMICA

3.a. Ingresos

En el Cuadro VI.1 siguiente se presenta el resumen de los ingresos liquidados, derechos reconocidos y liquidados netos, por el Gobierno Vasco en el ejercicio 2018, por un total de 11.691.031 miles de euros.

Los cuadros siguientes muestran los ingresos por los principales conceptos, destacando las Aportaciones de las Diputaciones Forales que representaron un 85,5% del total de ingresos de las Instituciones Comunes del País Vasco.

EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOA. DIRU-SARRERA LIKIDATUAK COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO. INGRESOS LIQUIDADOS						
						ooo€
DIRU-SARRERA	2018	2017	2016	2015	2014	INGRESOS
1. FORU-ALDUNDIEN EKARPENAK	9.997.427	9.832.970	8.734.503	8.439.606	8.261.433	1. APORTACIONES DIP. FORALES
Ekarpen Orokorra	9.366.098	8.134.577	8.224.923	7.987.883	7.845.378	Aportación General
Ekarpen Bereziak	631.329	1.698.393	509.580	451.723	416.055	Aportaciones Específicas
2. BESTE DIRU-SARRERA INST. BATZUK	203.675	237.267	266.144	212.397	390.451	2. OTROS INGRESOS INSTITUCIONALES
Euskadiko erakundeen transf.	518	3.500	2.725	618	361	Transf. Instituciones País Vasco
Estatuaren transferentziak	107.726	143.134	157.453	143.543	252.402	Transferencias del Estado
Europar Batasuneko funtsak	95.431	90.633	105.966	68.236	137.688	Fondos Unión Europea
EGF	788	1.479	9.296	1.005	4.388	FSE
EGEF	23.156	3.137	29.313	357	61.235	FEDER
LGENF	20.422	18.707	5.448	7.285	10.574	FEADER*
NBEF	50.677	57.715	57.541	55.582	55.164	FEAGA*
AEF (ABFT)		6.900	1.813		5.740	FEP (IFOP)
AIEF		2.438				FEMP
Beste funts batzuk	388	257	2.555	4.007	586	Otros Fondos
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	1.489.928	1.194.227	1.405.625	1.450.309	1.455.646	3. OTROS RECURSOS
Zeharkako zergak	4.134	3.992	3.918	3.941	5.700	Impuestos indirectos
Tasak eta prezio publikoak	170.011	178.022	181.564	180.367	213.372	Tasas y precios públicos
Beste transferentziak	4.888	11.050	10.384	13.518	10.980	Otras transferencias
Ondare-sarrerak	1.663	2.152	36.198	35.409	48.139	Ingresos patrimoniales
Inbertsio errealen besterentzeak	12.074	177	946	1.467	1.966	Enajenación de inversiones reales
Finantza-aktiboen gutxitzea	23.447	23.787	66.574	52.590	36.122	Disminución de activos financieros
Zor publikoa	1.273.711	975.047	1.106.042	1.163.018	1.139.367	Deuda pública
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	11.691.031	11.264.464	10.406.271	10.102.312	10.107.529	TOTAL INGRESOS

* 2017ko urtarrilaz geroztik, AEF desgertu zen, eta AIEF sortu ziren.
* A partir de enero de 2017 desaparece el FEP, creándose el FEMP.

VI.1 KOADROA / CUADRO VI.1

EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-SARRERA LIKIDATUAK KAPITULUAREN ARABERA INGRESOS LIQUIDADOS DEL GOBIERNO VASCO POR CAPÍTULOS							
							ooo€
KONTZEPTUAK - URTEAK / CONCEPTOS - AÑOS	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
II. Kap. Zeharkako zergak Cap. II. Impuestos indirectos	2.476	6.079	5.700	3.941	3.918	3.992	4.134
III. Kap. Tasak, prezio pub. eta zuzb. publikoko beste batzuk Cap. III. Tasas, precios públicos y otros ingr. derecho público	181.861	195.659	213.372	180.367	181.564	178.022	170.011
IV. Kap. Gastu arruntetarako transf. eta dirulaguntzak Cap. IV. Transferencias y subven. para gastos corrientes	8.423.796	7.923.014	8.364.078	8.539.794	8.837.820	9.944.282	10.099.606
V. Kap. Ondare-sarrerak Cap. V. Ingresos patrimoniales	165.032	48.005	48.139	35.409	36.198	2.152	1.663
VI. Kap. Inbertsio errealen besterentzeak Cap. VI. Enajenación de inversiones reales	71.952	16	1.966	1.467	946	177	12.074
VII. Kap. Kapital eragiketetarako transf. eta dirulaguntzak Cap. VII. Transferencias y subv. para operaciones de capital	371.590	397.713	298.786	125.726	173.210	137.005	106.385
VIII. Kap. Finantza-aktiboen gutxitzea Cap. VIII. Disminución de activos financieros	48.738	63.531	36.122	52.590	66.574	23.787	23.447
IX. Kap. Finantza pasiboak Cap. IX. Pasivos financieros	1.084.420	1.175.253	1.139.367	1.163.018	1.106.042	975.047	1.273.711
GUZTIRA / TOTAL	**10.349.866**	**9.809.269**	**10.107.529**	**10.102.312**	**10.406.271**	**11.264.464**	**11.691.031**
Diru-sarrera arruntak / Ingresos corrientes	8.773.166	8.172.756	8.631.288	8.759.511	9.059.499	10.128.447	10.275.414
Kapital-eragiketak / Operaciones de capital	443.543	397.729	300.752	127.193	174.156	137.182	118.459
Finantza-eragiketak / Operaciones financieras	1.133.158	1.238.784	1.175.489	1.215.608	1.172.616	998.834	1.297.158

VI.2 KOADROA / CUADRO VI.2



VI.1 GRAFIKOA / GRÁFICO VI.1

2018AN EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-SARRERA LIKIDATUAK KONTZEPTUAREN ARABERA
INGRESOS LIQUIDADOS DEL GOBIERNO VASCO POR CONCEPTOS EN 2018

°°°€

kapituloa-artikuloa-konzeptoa	konz. conc.	art. art.	kap. cap.	capítulo-artículo-concepto
bingo jokoaren gaineko zerga				impuesto sobre el juego del bingo
jokoaren gaineko tasaren errekargua		4.134		recargo de la tasa sobre el juego
Kap. II: Zeharkako zergak			**4.134**	**Cap. II: Impuestos indirectos**
eaek berak araututako tasak: izaera orokorrekoak	4.033			de normativa propia de la cae: de carácter general
eaek berak araututako beste tasa batzuk	10.908			otras tasas de normativa propia de la cae
eaek berak arautzen ez dituen beste tasa batzuk	367			otras tasas de normativa no propia de la cae
tasak		15.307		tasas
prezio publikoak		19.842		precios públicos
itzulerak		10.291		reintegros
errekarguak, isunak eta zuzen.publik.sarr.interes	42.618			recargos, multas e intereses de ingr. derecho pub.
zerbitzu ezberdinengatiko diru-sarrerak	12.858			ingresos por servicios diversos
bestelako diru-sarrerak	66.232			otros ingresos
ohizkanpoko diru-sarrerak	2.862			ingresos extraordinarios
zuzb. publikopeko hainbat diru-sarrera		124.571		diversos ingresos en régimen de derecho público
Kap. III: Tasak, salneurriak eta zuzb. publikoko b. batzuk			**170.011**	**Cap. III: Tasas, pre. públicos y otros ingr. derecho públ.**
erakunde autonomoetatik	5.793			de organismos autónomos
zuzenbide pribatuko erakunde publikoetatik	329			de entes públicos de derecho privado
sozietate publikoetatik	22			de sociedades públicas
EAE AP-KES sailka. EAE SP ez diren erakundetatik	6			de entidades no SP CAE, clasificadas AP-SEC CAE
euskal autonomi erkidegoaren adm. publikotik		6.150		de la administracion pública de la cae
foru aldundietatik	9.997.707			de diputaciones forales
euskal alor publikoko toki-erakundeetatik	1.322			de entidades locales del sector público vasco
euskal alor publikoko zuzen. prib. beste erak. batzuetatik				de otros entes de derecho publico del sector púb. vasco
euskal alor publikoko erakundeetatik		9.999.030		de entidades del sector público vasco
estatuko administrazio zentraletik	29.299			de la administración central del estado
gizarte-segurantzaren erakunde kudeatzailetatik				de entidades gestoras de la seguridad social
espainiako alor publikoko besten erak. batzuetatik	461			de otras entidades del sector público español
espainiako alor publikoko erakundeetatik		29.760		de entidades del sector público español
atzerritik		64.326		del exterior
bestelako enpresa pribatuetatik				de otras empresas privadas
familiengandik	155			de familias
irabazi-asmorik gabeko instituzioetatik	185			de instituciones sin fines de lucro
familia, enpresa, beste alor eta erak. batzuetatik		340		de empresas, familias y otros sectores y entidades
Kap. IV: Gastu arruntetarako transf. eta dirulaguntzak			**10.099.606**	**Cap. IV: Transferencias y subven. para gastos corrientes**
EAE SP erakundeen kapitaleko partaidetzetatik				de participaciones en capital en entidades SP CAE
EAE AP-KES sailka. EAE SP ez erakundetan	40			en entidades no SP. CAE Clasificadas AP SEC CAE
EAEren finantza-inbertsioen diru-sarrerak		40		ingresos de inver. financieras en admón. pública CAE
Beste erakunde batzuetako kapitaleko partaidetzetatik				de participaciones en capital en otras entidades
Beste erakunde batzuetako kreditu-interesetatik	65			intereses créditos en otras entidades
beste erak. batzuetako f.-inbertsioen diru-sarr.		65		ingresos de inver. financieras en otras entidades
truke-alde positiboak	5			diferencias de cambio positivas
banku-kontuen interesak	2			intereses de cuentas corrientes bancarias
bestelako diru-sarrera finantzarioak				otros ingresos financieros
hainbat diru-sarrera finantzario		7		diversos ingresos financieros
alokatze eta antzeko eragiketengatiko sarrerak	170			ingresos por arrendamientos y opera. similares
zerbitzu ezberdinengatiko diru-sarrerak	393			ingresos por servicios diversos
bestelako diru-sarrerak	66			otros ingresos
ohizkanpoko diru-sarrerak	921			ingresos extraordinarios
ibilgetuaren sarrerak eta bestelako sarrera finantz.		1.550		ingresos del inmovilizado y otros ing. financieros
Kap. V: Ondare-sarrerak			**1.663**	**Cap. V: Ingresos patrimoniales**
eraikuntzak	10.537			construcciones
lurrak eta ondasun naturalak	1.494			terrenos y bienes naturales
garraio-elementuak	43			elementos de transporte
inbertsio materialen besterentzeak		12.074		enajenación de inversiones materiales
Kap. VI: Inbertsio errealen besterentzeak			**12.074**	**Cap. VI: Enajenación de inversiones reales**
euskal alor publikoko toki-erakundeetatik		518		de entidades locales del sector público vasco
estatuko administrazio zentraletik		73.602		de entidades del sector público español
atzerriko alor publikotik		32.264		del exterior
Kap. VII: Kapital eragiketetarako transf. eta dirulaguntzak			**106.385**	**Cap. VII: Transf. y subv. para opera. de capital**
EAEko alor publikoko erakundeetako partaidetzak				participaciones en entidades sector público de la CAE
EAEko sektore publikoari emandako kredituak	123			créditos al sctor público de la CAE
EAE AP-KES sailka. EAE SP ez erakundetan	1.525			en endidades no SP-CAE Clasificadas AP-SEC CAE
fin-inbertsioak EAE AP-KES sailka. EAE SP ez erakundetan		1.648		inv. fin. en entidades SP-CAE y ent. Clasif. AP-SEC CAE
finantza-inbertsioak ondare tresnetan	1.545			inversiones finacieras en instrumentos de patrimonio
kredituak	14.923			créditos
langileei emandako kredituak	5.331			créditos al personal
beste erakunde batzuetako finantza-inbertsioak		21.800		inversiones financieras en otras entidades
Kap. VIII: Finantza-aktiboen gutxitzea			**23.447**	**Cap. VIII: Disminución de activos financieros**
jasapenak eta antzeko baste jaulkipen batzuk		969.031		empréstitos y otras emisiones análogas
beste erakunde batzuekiko zorrak		300.000		deudas con otras entidades
beste zor batzuk		4.680		otras deudas
Kap. IX: Finantza-pasiboen gehikuntza			**1.273.711**	**Cap. IX: Aumento de pasivos financieros**
GUZTIRA		**11.691.031**		**TOTAL**

VI.3 KOADROA / CUADRO VI.3

3.a.1. Foru-aldundien ekarpenak

a. Hasierako aurrekontua

2018. ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundiek zenbateko ekarpena egin behar zuten aurreikustea, bai eta haietako bakoitzari ezar zekizkiokeen koefiziente horizontalak ere, martxoaren 23ko 2/2007 Legeari jarraiki zehaztu zituen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak.

3.a.1. Aportaciones de las Diputaciones Forales

a. Presupuesto inicial

La previsión de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2018, así como los coeficientes horizontales aplicables fueron determinados de acuerdo con la Ley 2/2007, de 23 de marzo, por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

2018RAKO EKARPENAK / APORTACIONES PARA 2018	000€
EKARPEN OROKORRA / APORTACIÓN GENERAL	**8.843.242**
EKARPEN BEREZIAK / APORTACIONES ESPECÍFICAS	**680.104**
Ertzaintza / Policía Autónoma	41.435
Finantzaketa berria / Nueva financiación	212.414
Eskumen berriak / Nuevas competencias	426.255
EKARPENAK GUZTIRA / TOTAL APORTACIONES	**9.523.346**

VI.4 KOADROA / CUADRO VI.4

2018RAKO EKARPEN OROKORRAREN KALKULUA CÁLCULO DE LA APORTACIÓN GENERAL PARA 2018	000€
Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortu eta banaketa-gai diren diru-sarrerak Ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto	**14.391.278**
Itundutako zergen bilketa / Recaudación Tributos Concertados	14.391.278
Interesak / Intereses	0
Kupoaren metodologiatik eratorritako kenkariak Deducciones procedentes de la metodología del Cupo	**(1.765.290)**
1. Estatuarentzako Kupoa / Cupo al Estado	**(1.057.635)**
1.1. 2017ko kupo eta konpentsazioen likidazioa / Liquidación Cupo y Compensaciones 2017	**(105.009)**
2017ko kupoaren likidazioa / Liquidación Cupo 2017	0
2017ko finantza-konpentsazioen likidazioa / Liquidación Compensaciones Financieras 2017	(8.653)
2017ko Enplegu-Politika Aktiboen likidazioa EEZPren 4+7 kapituluak Liquidación Políticas Activas de Empleo (cap. 4+7 SPEE) 2017	(96.356)
1.2. 2018ko kupo likido eta konpentsazioak / Cupo Líquido y Compensaciones 2018	**(952.626)**
2018ko kupo likidoa / Cupo Líquido 2018	(1.369.762)
2018ko finantza-konpentsazioak / Compensaciones financieras 2018	75.888
2018ko Enplegu-Politika Aktiboen EEZPren 4+7 kapituluak Políticas Activas de Empleo (cap. 4+7 SPEE) 2018	341.248
2. Ertzaintza / Policía autónoma	**(41.435)**
2017ko likidazioa / Liquidación 2017	0
2018ko balorazioa / Valoración 2018	(41.435)
3. Finantzaketa berria / Nueva financiación	**(239.965)**
2017ko likidazioa / Liquidación 2017	0
2018ko balorazioa / Valoración 2018	(239.965)
4. Eskumen berriak / Nuevas competencias	**(426.255)**
2017ko likidazioa / Liquidación 2017	96.356
2018ko balorazioa / Valoración 2018	(522.611)
BANATU BEHARREKO BALIABIDEAK / RECURSOS A DISTRIBUIR	**12.625.988**
Ekarpen Orokorra (% 70,04) / Aport. General (70,04%)	8.843.242
EKARPEN OROKORRA GUZTIRA / TOTAL APORTACIÓN GENERAL	**8.843.242**

VI.5 KOADROA / CUADRO VI.5

Lurralde historiko bakoitzaren ekarpena aurreko kopuruei (Ekarpen Orokorra eta Ekarpen Bereziak) koefiziente horizontalak aplikatuta kalkulatzen da, eta horrela lortzen da Ekarpenen Aurrekontua.

La Aportación de cada Territorio Histórico es el resultado de aplicar los coeficientes horizontales a las cantidades anteriores (Aportación General y Aportaciones Específicas) obteniéndose el Presupuesto de Aportaciones.

2018RAKO KOEFIZIENTE HORIZONTALAK COEFICIENTES HORIZONTALES PARA 2018	
ARABA / ÁLAVA	16,44%
BIZKAIA	50,37%
GIPUZKOA	33,19%

VI.6 KOADROA / CUADRO VI.6

2018KO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRA
PRESUPUESTO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO 2018
FORU ALDUNDIEK EGIN BEHARREKO EKARPENAK / APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES 2018

000€

KONTZEPTUA / CONCEPTO	**ARABA** ÁLAVA 16,44%	**BIZKAIA** 50,37%	**GIPUZKOA** 33,19%	**GUZTIRA** TOTAL 100,00%
EKARPEN OROKORRA APORTACIÓN GENERAL	1.453.829	4.454.341	2.935.072	8.843.242
EKARPEN BEREZIAK APORTACIONES ESPECÍFICAS				
Ertzaintza / Policía Autónoma	6.812	20.871	13.752	41.435
Finantzaketa berria / Nueva financiación	34.921	106.993	70.500	212.414
Eskumen berriak / Nuevas competencias	70.076	214.704	141.474	426.255
EKARPENAK GUZTIRA / TOTAL APORTACIONES	1.565.638	4.796.909	3.160.798	9.523.346

VI.7 KOADROA / CUADRO VI.7

VI.8 koadroan adierazten dira, laburtuta eta epeka eta kontzeptuka zehaztuta, 2018. urtean zehar foru-aldundiek benetan zer ekarpen egin dituzten.

En el Cuadro VI.8 se muestra el resumen, detallado por plazos y conceptos, de las Aportaciones realmente desembolsadas por las Diputaciones Forales durante el 2018.

EPEAK ETA FORU-ALDUNDIEK 2018AN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI EGINDAKO BENETAKO EKARPENAK
PLAZOS Y APORTACIONES EFECTIVAS DE LAS DIPUTACIONES FORALES 2018 A LA CAPV

000€

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	**I. EPEA** PLAZO I **otsaila** febrero	**II. EPEA** PLAZO II **apirila** abril	**III. EPEA** PLAZO III **ekaina** junio	**IV. EPEA** PLAZO IV **abuztua** agosto	**V. EPEA** PLAZO V **urria** octubre	**VI. EPEA** PLAZO VI **azaroa** noviembre	**LIKID.** LIQUID. **19ko otsa.** feb. 19	**EKARPEN** APORTAC. 2018
EKARPEN OROKORRA / APORTACIÓN GENERAL	1.473.874	1.473.874	1.512.897	1.512.897	1.489.441	1.710.220	192.896	9.366.098
EKARPEN BEREZIAK / APORTACIONES ESPECÍFICAS								
Ertzaintza / Policía Autónoma	6.906	6.906	5.729	5.729	6.490	6.490		38.250
Finantzaketa berria / Nueva Financiación	35.402	35.402	29.371	29.371	33.268	33.268		196.083
Eskumen berriak / Nuevas competencias	71.042	71.042	65.275	65.275	77.754	77.754	-31.146	396.997
GUZTIRA / TOTAL	1.587.224	1.587.224	1.613.273	1.613.273	1.606.952	1.827.731	161.749	9.997.427
ARABA / ÁLAVA	260.940	260.940	265.222	265.222	264.183	300.479	26.592	1.643.577
BIZKAIA	799.485	799.485	812.606	812.606	809.422	920.628	81.473	5.035.704
GIPUZKOA	526.800	526.800	535.445	535.445	533.347	606.624	53.685	3.318.146

VI.8 KOADROA / CUADRO VI.8

b. Ekitaldian zeharreko aldaketak

2/2007 Legeak ezarritakoari jarraiki, ekitaldian zehar ekarpenek izan ditzaketen aldaketak zati

b. Modificaciones durante el ejercicio

De acuerdo con lo establecido en la Ley 2/2007, las modificaciones de las Aportaciones

berdinetan banatuko dira, ekitaldi horretan muga-egunera iritsi gabeko ordainketa-epeen artean.

2018ko ekitaldian, ekarpenak berriro kalkulatu beharra eragin duten zenbait gertaera daude:

Estatuko Aurrekontu Orokorren luzapenaren ondorioz, 2018ko maiatzean behin-behineko kupoaren eta finantza-konpentsazioen balorazio berri bat zehaztu zen 2018rako, baita enplegu-politika aktiboen arloan eskualdatutako programa jarduketena (eta onartutako kreditu-aldaketena) ere. Gainera, 2017ko Kupoa likidatzen da. Balorazio berri horrek eta aurreko urteko likidazioak, ekarpen orokorraren eta ekarpen espezifikoen birkalkulua eskatzen du ekainetik aurrera.

Estatuko Aurrekontu Orokorrak uztailean onartzeak berekin dakar 2018rako kupoa berriro kalkulatzea, eta, ondorioz, urritik aurrerako ekarpenak berriro kalkulatzea.

Azaroan, ohikoa denez eta 2/2007 Legearen 23. artikuluak ezarritakoa jarraiki, aurre-likidazioko egokitzapen bat egin zen Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortutako diru-sarreren likidaziorako aurreikuspenak oinarri hartuta. Aurreikuspen horiek Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartu zituen urriaren 11n egindako bilkuran.

2019ko otsailean, 2018ko ekarpenen likidazioa egin zen, itundutako zergetan benetan bildutakoari dagokionez foru-aldundiek kontabilizatutakoa oinarri hartuta eta kalkuluan parte hartzen duten gainerako aldagaien datu errealak ikusita.

VI.9. koadroan ikusten da goian adierazitako egoera horietako bakoitzak zer-nolako eragina izan zuen ekarpenen birkalkulatzean aurreko egoerarekiko.

serán distribuidas a partes iguales entre los plazos del ejercicio pendientes de vencimiento.

En el ejercicio 2018 hay varios hechos que provocan un recálculo de las Aportaciones:

La prórroga de los Presupuestos Generales del Estado motiva que en mayo de 2018 se determine una nueva valoración del Cupo Provisional y compensaciones financieras para 2018, así como de los programas y actuaciones traspasados en materia de políticas activas de empleo (incluyendo las modificaciones de crédito aprobadas). Además, se líquida el Cupo de 2017. Esa nueva valoración junto con la liquidación del año anterior ocasiona el recálculo a partir del mes de junio de la Aportación General y de las Aportaciones Específicas.

La aprobación de los Presupuestos Generales del Estado en julio implica un nuevo recálculo del Cupo para 2018 y en consecuencia, de las Aportaciones a partir del mes de octubre.

En el mes de noviembre, como es habitual y conforme a lo establecido en el artículo 23 de la Ley 2/2007, se realizó un ajuste preliquidatorio de acuerdo a las previsiones de liquidación de los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico, aprobadas por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas en la sesión celebrada el día 11 de octubre.

En febrero de 2019 se practicó la Liquidación de las Aportaciones del 2018, sobre la recaudación real por tributos concertados contabilizada por las Diputaciones Forales y a la vista de los datos reales del resto de variables que intervienen en el cálculo.

La incidencia de cada una de las circunstancias anteriores en el recálculo de las Aportaciones, con respecto a la situación inmediata anterior, se indica en el Cuadro VI.9.

EKARPENEN ALDAKETAK / MODIFICACIONES EN LAS APORTACIONES				
				000€
KONTZEPTUAK CONCEPTOS	**III. EPEA** PLAZO III **ekaina** junio	**V. EPEA** PLAZO V **urria** octubre	**VI. EPEA** PLAZO VI **azaroa** noviembre	**LIKID.** LIQUID. **2019ko ots.** febrero 2019
EKARPEN OROKORRA APORTACIÓN GENERAL	39.024	-23.457	220.779	192.896
EKARPEN BEREZIAK APORTACIONES ESPECÍFICAS				
Ertzaintza / Policía Autónoma	-1.177	760		
Finantzaketa berria / Nueva Financiación	-6.031	3.897		
Eskumen berriak / Nuevas competencias	-5.767	12.479		-31.146
ALDAKETAK, GUZTIRA TOTAL MODIFICACIONES	26.049	-6.321	220.779	161.749

Aurreko egoerarekiko aldaketak / Modificaciones respecto de la situación inmediata anterior

VI.9 KOADROA / CUADRO VI.9

Jakina, aldaketa horien guztirako kopurua bat dator ekarpenen likidazioaren —Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartzen duena— eta hasieran onartutako kopuruen artean dagoen aldearekin (VI.10 koadroa).

El importe acumulado de estas modificaciones coincide, lógicamente, con la diferencia entre la liquidación de las aportaciones, que se aprueba por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, y las cifras inicialmente aprobadas (Cuadro VI.10).

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK 2018AN IZANDAKO EKARPENEN AURREKONTUA ETA LIKIDAZIOA PRESUPUESTO Y LIQUIDACIÓN DE LAS APORTACIONES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO 2018			
			000€
FORU-ALDUNDIEN EKARPENAK APORTACIONES DE LAS DD. FF.	**LIKIDAZIOA** LIQUIDACIÓN	**AURREKONTUA** PRESUPUESTO	**DIFERENTZIA** DIFERENCIA
EKARPEN OROKORRA / APORTACIÓN GENERAL	9.366.098	8.843.242	522.856
EKARPEN BEREZIAK / APORTACIONES ESPECÍFICAS			
Ertzaintza / Policía Autónoma	38.250	41.435	-3.186
Finantzaketa berria / Nueva financiación	196.083	212.414	-16.331
Eskumen berriak / Nuevas competencias	396.997	426.255	-29.258
EKARPENAK GUZTIRA / TOTAL APORTACIONES	9.997.427	9.523.346	474.081

VI.10 KOADROA / CUADRO VI.10

Foru-aldundiek zerga itunduengatik bildu duten diru-kopuruak gora egin du (VI.11 koadroa), eta Estatuari ordaindu beharreko kupoaren ordainketak behera egin du. Horren ondorioz, ekarpen orokorrak nabarmen egin du gora, ekarpen bereziengatik gutxiago jasotako zenbatekoa konpentsatuz.

El aumento de la recaudación por tributos concertados de las Diputaciones Forales (Cuadro VI.11) junto con una disminución en el pago del Cupo al Estado ha provocado un importante incremento de la Aportación General que ha compensado el menor importe percibido por Aportaciones Específicas.

FORU-ALDUNDIEN 2018KO AURREKONTUA ETA LIKIDAZIOA
PRESUPUESTO Y LIQUIDACIÓN DIPUTACIONES FORALES 2018
ITUNDAKO ZERGEN BILKETA / RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS

000€

LH / TT.HH.	**BENETAN BILDUTAKOA** RECAUDACIÓN REAL	**AURREKONTUA** PRESUPUESTO	**ALDEA** DIFERENCIA
ARABA / ÁLAVA	2.404.083	2.295.522	108.561
BIZKAIA	7.740.095	7.425.348	314.748
GIPUZKOA	4.837.366	4.670.408	166.957
GUZTIRA / TOTAL	14.981.545	14.391.278	590.267

VI.11 KOADROA / CUADRO VI.11

Horrela, Foru-aldundiek 2018ko ekitaldian egindako Ekarpenaren likidazioa 9.997.427 mila eurokoa izan zen. Foru-aldundiek 2017. urtean egindako ekarpenak 9.832.970 mila eurokoak izan ziren eta 2016. urtean egindakoak, 8.734.503 mila eurokoak.

2018an egindako ekarpenen igoera, 2017an egindakoen aldean,% 1,7koa izan da. 2017an egindako ekarpenak 2016an egindakoak baino % 12,6 handiagoak izan ziren.

Foru-aldundiek 2018ko ekitaldian egindako Ekarpen Orokorraren likidazioko xehetasuna VI.12 koadroan adierazten da.

De esta forma, la liquidación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales del ejercicio 2018 fue de 9.997.427 miles de euros. Las aportaciones realizadas por las Diputaciones Forales en el año 2017 fueron 9.832.970 miles de euros y las realizadas en el 2016 ascendieron a 8.734.503 miles de euros.

El aumento de las aportaciones realizadas en el 2018 respecto a las realizadas en el 2017 es de un 1,7%. Las aportaciones realizadas en el 2017 fueron un 12,6% superiores a las realizadas en el 2016.

El detalle de la liquidación de la Aportación General de las Diputaciones Forales del ejercicio 2018 se refleja en el cuadro VI.12.

2018RAKO EKARPEN OROKORRAREN LIKIDAZIOA LIQUIDACIÓN DE LA APORTACIÓN GENERAL DE 2018	000€
Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortu eta banaketa-gai diren diru-sarrerak Ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto	**14.981.905**
Itundutako zergen bilketa / Recaudación Tributos Concertados	14.981.905
Interesak / Intereses	0
Kupoaren metodologiatik eratorritako kenkariak Deducciones procedentes de la metodología del Cupo	**(1.609.406)**
1. Estatuarentzako Kupoa / Cupo al Estado	**(950.990)**
1.1.2017eko kupo likido,konpentsazioak eta Enplegu Politikak likidazioa Liquidación de Cupo líquido, compensaciones y Políticas Empleo 2017	**(14.394)**
2017ko kupoaren likidazioa / Liquidación Cupo 2017	90.349
2017ko finantza-konpentsazioen likidazioa / Liquidación compensaciones financieras 2017	(5.037)
2017ko Enplegu-Polit. Aktiboen likid.ren EEZPren 4+7 kapituluak / Liquid. Polít. Activas de Empleo (cap. 4+7 SPEE) 2017	(99.531)
Enplegu-Politika Aktiboen EEZPren 4+7 kapituluak 2017ko kitapenaren doiketa Valoración Capítulos 4+7 SPEE: Ajuste Liquidación 2017	(176)
1.2.2018ko kupo likido,konpentsazioak eta Enplegu Politikak Cupo líquido, compensaciones y Políticas Empleo 2018	**(936.596)**
2018ko kupo likidoa / Cupo líquido 2018	(1.354.797)
2018ko eskumen berriak / Nuevas competencias 2018	30
2018ko finantza konpentsazioak / Compensaciones financieras 2018	87.263
2018ko Enplegu-Politika Aktiboen EEZPren 4+7 kapituluak Políticas Activas de Empleo (cap. 4+7 SPEE) 2018	362.104
Enplegu-Politika Aktiboen kreditu aldaketak Modificaciones de crédito Políticas Activas de empleo	(31.195)
2. Ertzaintza / Policía autónoma	**(38.250)**
2017ko likidazioa / Liquidación 2017	2.733
2018ko balorazioa / Valoración 2018	(40.983)
3. Finantzaketa berria / Nueva financiación	**(221.515)**
2017ko likidazioa / Liquidación 2017	15.828
2018ko balorazioa / Valoración 2018	(237.343)
4. Eskumen berriak / Nuevas competencias	**(398.651)**
2017ko likidazioa / Liquidación 2017	111.669
2018ko balorazioa / Valoración 2018	(510.320)
BANATU BEHARREKO BALIABIDEAK / RECURSOS A DISTRIBUIR	**13.372.499**
Ekarpen Orokorra (% 70,04) / Aport. General (70,04%)	9.366.098
EKARPEN OROKORRA GUZTIRA / TOTAL APORTACIÓN GENERAL	**9.366.098**

VI.12 KOADROA / CUADRO VI.12

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2010eko otsailaren 12an izandako bileran, enpresa-finantzaketarako abal publikoak emateko aparteko programa onartu zuen. Programaren aurrekontu-kostua foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dute, Ekarpen Orokorraren eta Ekarpen Bereziaren kalkuluan kenkari berezia kontuan izatearen bidez. 2018an ez da inolako kosturik izan kontzeptu horrengatik.

Abal-plan horri dagokionez, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2010eko otsailaren 12an erabaki zuen baita ere zenbateko kobraezinaren berreskurapenak erakundeen artean banatzea, dagozkien koefiziente bertikal eta horizontalen arabera. 2011ko otsailaren 15ean eta 2012ko otsailaren 14an

El Consejo Vasco de Finanzas Públicas en sesión celebrada el 12 de febrero de 2010 aprobó el programa extraordinario de avales públicos para la financiación empresarial, cuyo coste presupuestario es financiado por las diputaciones forales y el Gobierno Vasco mediante la consideración de una deducción especial en el cálculo de la Aportación General y su correspondiente Aportación Específica. En el año 2018 no se ha producido coste alguno por este concepto.

En relación con este plan de avales el Consejo Vasco de Finanzas Públicas en sesión celebrada el 12 de febrero de 2010 acordó asimismo la fórmula de reparto institucional de las recuperaciones de importes fallidos en función de sus respectivos coeficientes vertical y horizontales. En las sesiones celebradas el 15

egindako bileretan onartu zen aurreko formula bera aplikatzea emandako abalen komisioetatik eratorritako zenbatekoak banatzeko.

de febrero de 2011 y el 14 de febrero de 2012, se acordó la misma fórmula de reparto para las comisiones de avales.

2019ko otsailean 1.461,9 mila euro banatu dira zenbateko kobraezinaren berreskurapen gisa eta 27,8 mila euro abalen komisioengatik. Banaketa honako hau izan da:

En febrero de 2019 se han repartido 1.461,9 miles de euros en concepto de recuperación de fallidos y 27,8 miles de euros por comisiones de avales, con la siguiente distribución:

000€

ERAKUNDEA / INSTITUCIÓN	**%**	**ABALEN PLANA** PLAN DE AVALES
EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO	70,04	**1.043,4**
FORU ALDUNDIAK / DIPUTACIONES FORALES	29,96	**446,3**
ARABA / ÁLAVA		73,4
BIZKAIA		224,8
GIPUZKOA		148,1
GUZTIRA / TOTAL	**100,00**	**1.489,7**

VI.13 KOADROA / CUADRO VI.13

Bestalde, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2006ko otsailaren 13an egindako bileran, onartu zuen Zailtasunak dituzten Enpresentzako Ezohiko Laguntza Planarengatik (3R) 2006-01-01etik egindako berreskurapenen zenbatekoa erakundeen artean urtero banatzea, dagozkien koefiziente bertikal eta horizontalen arabera.

Por otra parte, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, en su reunión de 13 de febrero de 2006, acordó que el importe de las recuperaciones por el Plan de Actuación Extraordinario para Empresas en Dificultades (3R) efectuadas a partir del 01-01-2006 se distribuyeran anualmente entre las instituciones del País Vasco, en función de sus coeficientes vertical y horizontales.

2019ko otsailean 16,8 mila euro banatu dira. Banaketa honako hau izan da:

En febrero de 2019 se han repartido 16,8 miles de euros con la siguiente distribución:

000€

ERAKUNDEA / INSTITUCIÓN	**%**	**3R PLANA** PLAN 3R
EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO	70,04	**11,8**
FORU ALDUNDIAK / DIPUTACIONES FORALES	29,96	**5,0**
ARABA / ÁLAVA		0,8
BIZKAIA		2,5
GIPUZKOA		1,7
GUZTIRA / TOTAL	**100,00**	**16,8**

VI.14 KOADROA / CUADRO VI.14

Gainera, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2017ko otsailaren 13an egindako bileran, erabaki zuen Proiektu Estrategikoetarako

Además, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas en su reunión de 13 de febrero de 2017 acordó que los importes recuperados de los

Funtsa ez-betetze espedienteak direla eta, jasotzen diren diru-kopuruak, erakunde guztien artean banatzea urtero, bakoitzari dagozkion koefiziente bertikal eta horizontalen arabera.

2019ko otsailean 1.158,4 mila euro banatu dira Banaketa honako hau izan da:

expedientes de incumplimiento correspondientes al Fondo de Proyectos Estratégicos, se repartieran anualmente entre todas las instituciones en función de sus coeficientes vertical y horizontales respectivos.

En febrero de 2019 se han repartido 1.158,4 miles de euros con la siguiente distribución:

000€

ERAKUNDEA / INSTITUCIÓN	%	FPE
EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO	70,04	**811,4**
FORU ALDUNDIAK / DIPUTACIONES FORALES	29,96	**347,1**
ARABA / ÁLAVA		57,1
BIZKAIA		174,8
GIPUZKOA		115,2
GUZTIRA / TOTAL	**100,00**	**1.158,4**

VI.15 KOADROA / CUADRO VI.15

c. 2007-2018 aldiko bilakaera

VI.16 koadroan, foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoari 2007-2018 aldian egindako ekarpenen likidazioa jasotzen da, eta VI.2 eta VI.3 grafikoetan, berriz, grafikoki adierazita daude, kontzeptuka eta foru-aldundika, hurrenez hurren.

c. Evolución en el período 2007-2018

En el Cuadro VI.16 se recoge la liquidación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, realizadas durante el período 2007-2018 y de forma visual en los Gráficos VI.2 y VI.3, según conceptos y por Diputaciones Forales, respectivamente.

FORU-ALDUNDIEK EUSKADIKO ERAKUNDE ERKIDEEI EGINDAKO EKARPENEN BILAKAERA
EVOLUCIÓN DE LAS APORTACIONES REALIZADAS POR LAS DD. FF. A LAS INSTITUCIONES COMUNES DEL PAÍS VASCO

000€

	EKARPEN OROKORRA APORTACIÓN GENERAL	**EKARPEN BEREZIAK** APORTACIONES ESPECÍFICAS	**2011.10.14KO HDEKAREN 4. AKORDIOA** ACUERDO Nº 4 DEL CVFP DE 14.10.2011	**EKARPEN GUZTIRA** TOTAL APORTACIONES	**ARABA** / ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**
